

OIHENARTEN IV. MENDEURRENA

IKER 8

Donostia, 1994-11-18

Oihenarten laugarren mendurrena zela eta egindako XII. biltzarrean aurkeztutako txostenak biltzen dituen *Iker-8* liburua aurkeztu du Euskaltzaindiak.

1992.aren irailean Oihenarten IV. mendurrena zela eta Maulen eta Donapaleun egin zuen XII. Biltzarrean aurkeztu ziren txostenak biltzen dituen Iker bildumaren 8garren alea aurkeztu du gaur Donostian Euskaltzaindiak.

Jean Haritschelhar eskaltzainburuak adierazi duenez, Akademiaren helburuetako bat betetzen da 700 bat orrialdeko liburu mardul honekin, "euskal idazle zaharrak oho-atzea, beste herri batzuk egiten duten bezala, horiek egin baitute gure literatura".

OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART

OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART



OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART

OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OIHENART

iker - 8

Oihenarten garrantzia kontuan izanik, Maulen jaiotako euskaltzaleari eskainitako omenaldia “laudorio soil bat baino gehiago izan zedin nahi zuen Euskaltzaindiak, eta bere XII. Biltzarra eman zion ospakizunari, bost egunetz Oihenarten bizitzaren eta lanaren inguruan 27 hizlari bildu zirelarik”.

Euskaltzainburuak azpimarratu duen bezala, “Euskaltzaindiaren ohorea Biltzar hartan, oraindik orain Leioan egin duen XIII.ean gertatu den modura, zortzi unibertsitatetako irakasleak biltzea izan zen”. Baiona, Deustu, Bordele, Madrilgo UNED, Pariseko bi unibertsitatetik eta Euskal Herriko Unibertsitatetik bertaraturako irakasleek, hainbat euskaltzainekin batera, ikuspuntu desberdinetatik eta ikuspegi kritikoz aztertu zuten Oihenart emankorraren lana. Lege-gizona, historigilea, hizkuntzalaria, gizon publikoa, atsotitz biltzailea eta olerkaria izan zen Oihenarti eskainitako hau da, Jean Haritshelharren hitzetan, Euskaltzaindiak euskal idazle baten inguruan prestatu duen iker-lanik osatu eta garrantzitsuena eta, Oihenarti dagokionez, “orain arte egin dena, baino hamar aldiz gehiago” 1980.ean iker-lan bereziak argitaratzeko sortu zen sailaren ale berri honetan biltzen dena.

Patxi Altunak ere Oihenarten lanaren zabaltasuna aipatu du Iker-8an jasotzen diren txostenak aurkezterakoan:

“Txostenen erdiak hizkuntzari buruzkoak dira, izugarrizkoa izan baitzen alor honetan Oihenarten ekarria. Poeta bezala ere garrantzi handikoa izan zen Oihenart, Europan egiten zen poesia garaikidea ongi ezagutzen zuelarik, berak jarri zizkion eta lehenengo aldiz lege jakin batzuk euskal olerkigintzari kaskarra iruditzen zitzaion bertsolaritzatik poesia berri, dotore eta ederrago baterako bidea prestatzeko, nahiz eta ez zuen jarraitzailerik izan”.